

LOKALIZAZIOAK

Espazioaren garrantzia

Planoen tipologiaren sailkapenerako giza gorputza erabiltzen bada ere, zuzenagoa litzateke giza gorputza eta espazioaren arteko harremanaren arabera definitzea.

Sarritan enkuadrea subjektuei begira bakarrik konposatzen dugu inguruko espazioa existituko ez balitz bezalaxe, baina espazioa presente dago eta lortuko dugun irudietan eragin zuzen eta nahitaezkoa izango du

Lokalizazio motak:

- Barrualdean / kanpoaldean
- Lehenagotik existitzen zirenak / dekoratuak

Baldintzak:

- Artistikoak: ekintzarako espazio aproposa izan behar du eta lortu nahi den giroa ahalbidetu behar du
- Fisikoak: tentsio elektrikoa, telefono estaldura, baldintza akustiko egokiak, gailuak eta ekintzarako nahikoa espazio izatea...

Lokalizatzerakoan kontuan hartu beharrekoak:

- Kostea
- Kokapena (urrun, altu, zaila...)
- Errealizazioa (planoak, kamera-mugimenduak...)
- Egokitasun artistikoa
- Azpiegiturak
- Argia:
 - Nahikoa argi natural duen, zenbat denboran zehar irauten duen eta eguzkiaren aldaketak
 - Argi artifizialik beharko dugun baloratu
 - Tokiaren azpiegiturak argiztapenaren diseinurako zein aukera ematen dizkigun baloratu
- Soinua:
 - Espazioan zaratarik dagoen: animaliak, trafikoa, hozkailu bat... Grabatutako zaratak ezin dira postprodukzioan guztiz kendu
 - Arazo hauek aurreikusi eta neurriak hartu beharko genituzke: grabazioan zaratak gelditzeko eskatu, trafikoa moztu, zoruan oihalak jarri zaratak moteltzeko...
- Eszenografia
 - Elementu arkitektoniko edo eszenografikoak proiektuaren beharretarako egokiak diren edo egokitu egin behar diren
 - Egokitu behar badira, kostua kuantifikatu (denbora eta dirua). Gehiegizko kostua bada beste lokalizazio bat bilatu beharko da
 - Dekoratuak eraikitzea beharrezkoa bada ere kostua kuantifikatu behar da
 - Altzariak bat etorri behar dute proiektuaren helburuarekin

- Errealizazioa
 - Beharrezkoa den distantzia egon behar da espazioan, kamera kokatzeko eta plano bakoitzak eskatzen duen elementuen distantzia bermatzeko
 - Travelling bat aurreikusita badugu:
 - Zorua aproposa izan behar du: zelaia, laua eta travelling-a egiteko erabilitako makinariaren pisua eusteko modua
 - Makineria erabiltzeko baimenik daukagun: errailak, garabiak...
 - Hainbat tokitan ezin dira travellingak egiteko beharrezkoak diren gailuak muntatu, horrela
 - balitz lokalizazioa aldatu edo bestelako konponbideak bilatu beharko lirateke